

Mendia →

oinezkoentzat ibilbide liburu bat; ezinbesteko da sokaren erabilera eta eskaladarako tekniken inguruan jakintza eta trebetasun oinarrizkoa edukitzea. Halakorik ez dutenek ikastaro batean izena ematea edo aditu baten eskuikitjoteara dute egokiena. «Errespetuarekin eta tentuz betioan behar da mendira, baina areago halako ertzak escalatzera goazenean. Mendi eta eskalada uztartzeko modua da, eta mendiko jarduera guztien artean gehien erakartzen nauena da. Ibiltzea gustatzen zaionarentzat, eta kirol eskaladaren zaitasuna bainoago, eskalada klasikoa gustuko dutenentzat mendiak igotzeko pizgarria dira liburuan bildutakoak», dio Iturritxak.

Formatu erabilgarria

Irteeratako bakoitzak osatu ahal izateko informazio ezinbestekoak dakar gidak: abiapuntura iristeko modua, gerturatzea, ertzaren igoeraren eta jaitsieraren deskribapen zehatza, argazkiak, ibilbidearen grafikoa, eskalada luze bakoitzaren zaitasuna eta bertan escalatzeko ezinbestekoak den materialari buruzko azalpenak... Eta erabilgarria izateko beste ezaugarri bat ere badu: formatu egokia. Azal gogorreko liburu mardul eta tamaina handikoa beharrean, neurri erdiko eta pisu arineko formatuan argitaratu du Sua argitaletxeak *Aristas y crestas de Euskal Herria*.

Gidaliburua iragan astetik eskura daiteke dendatan, 15 euroren trukean. Iturritxak jakinarazi duenez, argitalpenak eman ditza keen etekinen erdiak Iñaki Otxoa de Olza zenaren fundazioari bideratuko dizkio. Liburua eskuratzeko motibo gehigarria.

ko ertzak edo San Donatokoak ere nabarmenduko nituzke. Euskal Herrian kalitate handiko ertzak daude.


Nahiko ezagutzen al ditugu? Ez al dago gertuko gutxiesteko joera mendizale askoren artean?

Harritu egiten nau zenbat begiratzen dugun urruneko mendieta, eta zeinen gutxi etxetik irten eta gertuen ditugunetara. Euskal Herrian denetariko mendiak ditugu, eta ez dakigu baloratzen. Pirinioetara, Europako Mendietara edo Alpeetara begiratzen dugu, baina Euskal Herrian ere kalitate handiko ertzak ditugu. Mendizale eta alpinista on asko aterda hemen, eta zerbaitengatik izango da. Gutxiegi zergatik erreparatzan diegun ez dakit. Altueran mendi xumeak direla izan daiteke arrazoiak bat, eta jendeak zenbakiegi begiratzen diela. Baino mendi potenteak baditugu inguruaren, eta errespetu handia zor zaie.

↓ Proposamenetako hiru



Palomaresko ertza. «Proposamen izugarri ederra iruditzen zait. Agian ez du Anbotokoaren edo Txindokikoaren mitikotasunik, baina kalitatearen aldetik dena dauka: hurbiltze polita, ertza luzea, gradua, tontor polita, jaitsiera ona... eta, gainera, leku basatian dago, Arabako mendialdean». *'ARISTAS Y CRESTAS DE EUSKAL HERRIA'*




Anbotoko ertza. «Bizkaiko Alpeak direla esaten da, eta proposamen piloa dago han: Mugarra, Urrestei, Errialtabasoa... Anbotoko ertza lekuaren onena dela esatea asko esatea da, eta bertatik igoko gara Euskal Herriko mendi tontorrik ikusgarrienetakora. Nire uste apalean, Gorbeia, Anboto, Aizkorri, San Donato, Udalaitz, Txindoki eta Hiru Erregeen Mahaia dira gure mendirik esanguratsuenak». *'ARISTAS Y CRESTAS DE EUSKAL HERRIA'*



Beriaingo arrakala. «Leku hau nahiko bitxia da. Halako arrakala edo bretxa bat aurkitzea tontorrera heltzeko... Aurkitzen zaila da, oso. Behin arrakalan gora ari garela, ezkerrera nahiz eskuinera horma luzeak ikusiko ditugu. Neguan bertatik igoz gero, korridore polita bihurtzen da. Beriaingo tontorrean aterpe libreago dago, eta nahi izanez gero gaua han igaro daiteke». *'ARISTAS Y CRESTAS DE EUSKAL HERRIA'*

Irudia → Amurrio



GASTEIZEN ERABAKIKO DA

Euskal Mendizale Federazioak antolatutako Boulder Ligako hirugarren saioa jokatu zen larunbatean, Amurrioko Bañueta kiroldegian. 18 urtez azpikoetan Iñaki Velasco arrasatearrak irabazi zuen, Jon Azpilikueta eta Beñat Morenoren aurretik. Herri izaerako ligan Cristina Reyk eta Iñigo Usategik irabazi zuten, eta elitekoen artean Irene Alvarez eta Jon Ferrero izan ziren blokeak kateatzen trebeenak. Ligako laugarren eta azken jardunaldia hilaren 12an jokatuko da, Gasteizko Hegoalden. Han erabakiko dira txapeldunak. EMF

→ Laburrak

Belagoako zeharkaldiaren 40. ekitaldia, asteburuan

MENDIKO ESKIA » Nafarroa kirol elkartea Belaguako Goimendi Zeharkaldiaren 40. ekitaldia antolatu du astebururako. Bihar Linzako aterpetxetik Hiru Erregeen Mahaia igoko dute; Igande, Auñamendira joango dira. Berezia dator aurten zeharkaldia; datorren urterako, aldaketak iragarri dituzte antolatzaileek.

‘Pyrenaica’ sariak banatu dituzte EMFren galan

SARIAK » Euskal Mendizale Federazioak ostiralean Gasteizen egin zuen gala, mendiko jarduerak onenen aitzortzak egiteko ez ezik, *Pyrenaica* sarien berri emateko ere baliatu zuten. Argazki lehiaketako lehen saria Carlos Mediavillaren *Despertando sentidos. Valle del Jerte* bildumarentzat izan zen; eta mendi artikuluen lehiaketa, Jon Ander Iriareren *Córcega, una montaña en el mar* artikulua-rentzat. Ermakumeek Pyrenaiaren webgunean sortutako blogak ere jaso zuen saririk.

ACE KARABANAK ETA AUTOKARABANAK

ERAKUSKETA eta SALMENTA

Gerturatu eta
merkatuzteagatik
ditugun
eskaintza bereziak
ezagutu!

24 orduko parking zerbitzua

Tfnoa: 943-36 26 60
Aginaga - Usurbil
info@noraianautika.com